



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2022KO MAIATZAREN 17KOA. HORREN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIRA BESTE LURRALDE BATEKO JARDUNALDI ERDI BATERA JOATEA ESKATU DUEN HEZKUNTZA BEREZIKO LAN-LEGEPEKO PERTSONAL FINKOARI (HLE SALBU) 2022/23KO IKASTURTEAN BEHIN-BEHINGOZ ESLEITU ZAIZKION LANPOSTUAK.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL, DE 17 DE MAYO DE 2022, POR LA QUE SE HACE PÚBLICA, CON CARÁCTER PROVISIONAL, LA ASIGNACIÓN PROVISIONAL DE PLAZA PARA EL CURSO 2022/23 DEL PERSONAL LABORAL FIJO DE EDUCACIÓN ESPECIAL (EXCEPTO EAE) QUE HA SOLICITADO AUTODESPLAZAMIENTO A UNA MEDIA JORNADA DE OTRO TERRITORIO EN ASIGNACIÓN PROVISIONAL.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko maiatzaren 6ko ebazpenaren bidez epe zehatz bat ireki zen, aipatutako pertsonalak 2022/23ko ikasturtean beste lurralde bateko jardunaldi erdi batera, behin-behineko esleipenean, joatea eskatu ahal izateko. Eskaerak aztertu ondoren ebazpen horretan ezarritako irizpideen arabera, argitara ematen dira egindako behin-behineko esleipenak eta, halaber, epe bat irekitzen da, interesatuek, nahi izanez gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Por Resolución de la Directora de Gestión de Personal, de 6 de mayo de 2022, se procedió a la apertura de un plazo específico para que el personal citado pudiera solicitar autodesplazamiento a una media jornada de otro Territorio en asignación provisional para el curso 2022/23. Una vez analizadas las solicitudes conforme a los criterios establecidos en dicha Resolución, corresponde hacer pública con carácter provisional la asignaciones realizadas y abrir un plazo para la eventual presentación de reclamaciones por las personas interesadas.

Horren arabera, zuzendari honek, legeak ematen dizkion eskuduntzez baliatuz,

En su virtud, esta Directora, en ejercicio de las facultades que tiene conferidas,

EBAZTEN DUT:

RESUELVE:

Lehenena.- Argitara ematea 2022/23ko ikasturtean behin-behingoz esleitu diren lanpostuen behin-behineko zerrenda, Hezkuntza Bereziko (HLE salbu) lan-legepeko pertsonal finkoaren eskaerei jarraiki eta 2022ko maiatzaren 6ko ebazpenean ezarritako irizpideen arabera. Esleipenen zerrenda ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Primero.- Hacer pública con carácter provisional la asignación provisional de plazas para el curso 2022/23, atendiendo las solicitudes del personal laboral fijo de Educación Especial (salvo EAE) conforme a los criterios señalados en la Resolución de 6 de mayo de 2022. La relación de asignaciones figura en el Anexo de esta Resolución.

Bigarrena.- Langileak Kudeatzeko zuzendariarentzako idazki baten bidez aurkeztu ahal izango dira behin-behineko ebazpen honen kontrako erreklamazioak, maiatzaren 17tik 20ra bitartean, biak barne.

Segundo.- Las reclamaciones a esta resolución provisional de asignaciones podrán presentarse por escrito dirigido a la Directora de Gestión de Personal del 17 al 20 de mayo, ambos inclusive.

Erreklamazioak hez.k.sind@euskadi.eus posta elektronikora bidaliko dira eta honako hau erantsi behar da: sinatutako idatzia eta NANaren kopia atxikita.

Las reclamaciones se enviarán por correo electrónico a la dirección electrónica hez.k.sind@euskadi.eus adjuntando un escrito firmado y copia del DNI.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 17an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Blanca Guerrero Ocejo